
Euskal AEk segitzen du 2017an lehenengo hamabost herrialdeen artean GGIren arabera

2010-2017 aldian GGIren osagai guztiek egin dute hobera Euskal AEn. *Bizi-itxaropena* iragan da 82,4 urtetik 83,5 urtera, eta laugarren postuan da gainera, Hong Kongen (84,1) eta Japoniaren (83,9) atzetik bakarrik, eta Suitzaren (83,5) parean.

Berdin da gertatzen *espero diren eskola-urteak* adierazleari dagokionean, zeina 18,1 urtetik 18,8 urtera iragan baita, eta lehenengo tokietan ere kokatzen dena, zazpigarrenean zehazki; aurrean daude Australia (22,9), Belgika (19,8), Irlanda (19,6), Islandia (19,3), Danimarka (19,1) eta Zeelanda Berria (18,9).

Batez besteko eskola-urteetan, nahiz eta aipatu aldian 10,2 urtetik 11,0ra pasatu garen, 41 herrialde dauzkagu aurretik; aurrenak dira Alemania (14,1 urte batez bestez), Suitza eta Estatu Batuak (13,4) eta Kanada (13,3).